

LASARTEKO BERTSO PAPER ZAHAR BAT (1716)

José M.^a SATRUSTEGI

Norbaiten izena kopletan agertzea izan da euskaldunen artean akats eta ekintza txar guzieren zigorrik beldurgarrienetako bat. «Bertsoak paratzea» gure zaharrentzat bizi guzirako itzala izan ohi zen gehienetan. Ez zen gertakizun larri beharrik batzutan ahoz aho norberaren izena entzuten hasteko. Gaia arrunta zelarik, paperetan agertzeak berak ematen zion bestelako garrantzia. Hizbideak sortzen zituen herrietan eta iskanbila ugari.

Bide asko zuen zabalkunderako bertso paperak: 1) Belarrira isilka esandako ahozko bide izkutua. 2) Plazarik plaza itsu eta eskaleen ahotsez errepikatutako orrien eskuzko lorpena, eta 3) Antzerki itxurako talde baten aurkezpena.¹

Hiru maila horietan, belarrira isilka esandako koplak zuen, noski, iraupen laburrena. Suntsikorra da izkribuaren sostengurik gabe ahoz aho dabilen berria. Hala ere, behin edo beste herri kantu horiek auziak sortu ohi zituzten eta idazteko asmorik gabe esandakoak, legegizonen mordoilokerietan aurki ditzakegu. Orain baino lehen jaso izan dut eskuz idatzitako auzi paperetan horrelako kanturen bat.²

Gaur lehen aldiz argitaratzen dugun hau Lasarten zaratatsu gertatu zen 1716an. Haurrek ere abesten omen zuten eta bazter guzietan aditzen izan behar zuen lekukoek diotenez. Hogeita hamasei lerro ditu bidazkatuz abesteko egindako kantu honek eta Iruñean aurkitu dugu Eliz-Barrutiko idazgordailuan.³

Gaia traketsa gerta(tu) ohi da batzutan, eta funts gutxikoa izaten da bestetan. Irain eta gaizki esanengatik eraman ohi dituzte auzira. Hizkuntza aldetik duten lekukotasunak jakingarri egiten ditu eta gizarte ohituren aldetik, batez ere, ezaugarri onak jaso ditzakegu.

1. Ikus, *Luzaidoko Kantiak*. «Azken karrosa». Auspoa 65, 1967, 92. orrian.

2. *Versos satíricos vascos del año 1619*. Rev. Príncipe de Viana, 78-79, 1960. pág. 137.

3. Arch. Dioc. Pamplona. Lasarte 1716, Cartón 1420, núm. 20. Atención del archivero D. José Luis Sales.

Lafitte gure euskaltzainkide ospetsua herri kantuen arloan ere maisu dugu, bilduma mamitsuak prestatu bait ditu bere denboran. IKER 2 omenalditzat eskaintzen dionez Euskaltzaindiak, oraintsu aurkitu berri dugun emaitza honekin agertu nahi diot kantu zaharren bilketan egin duen lanagatik esker ona.

Auziaren funtsa.

Pedro Aguado (1713-1716) apezpikuaren heriotzarekin hutsik zegoen Iruñeko gotzai-aulkia, Lasarteko Juan Etxeberria eta Asentzia bere emazteak auzira eraman zutelarik herriko erretorea. Aitzaki bat baino gehiago bazuten apaizaren aurka. Asentzia edo María Asentzio horren ama hil zelarik elizkizunak egiteko modurik ez eta diru laguntza eskatu behar izan omen zioten norbaiti. Hilarioko bigarren urtean ogia eta argizaria eskaini ohi zuten asteleheneko mezan; Asentziak ordea liberako opilaren orde, erdia edo hirutatik bat besterik ez zuen eramaten, beretzat eta bere umeentzat uztea nahiago zuela esanez.

Apaizak ez zuen uste hain behar gorrian aurkitzen zenik familia eta etxekorik nehor gabe eskaintza hilibian utzia zuten batez, ez hartu egin zuen meza emailak. Hain estu baldin badabil María Asentzio eraman dezake etxera, esan omen zuen.

Salaketaren arrazoi nagusia, hala ere, ez zen hori. Sakramentuak hartzera joan zelarik Pazko biharamonean gizona, aitortzarik egiten utzi gabe bidali zuen elizatik apaizak, iraindua zuen gizonari barkamena eskatzeko aginduz. Brijida donearen monjetxean aitortza egin ondoan parrokian hartu nahi izan zuen Gure Juana; baina, ukatu egin zion hori ere herriko apaizak han zeuden eliztar guzien aurrean.

Baztertze horrekin Etxeberriaren izen ona zapaldu zuela eta, Iruñera ez bainan Kalahorrara eramango zuela auzia mehatxatu zuen etxeoandreak apaiza.

Larogei urte hurbil zuen erretoreak. Arazo honetako kezkarik larriena ahoz aho zebilen kantu lotsagarri batena omen zen. Predikuan noizbait adierazia zuenez, familia zuhur eta paketsu baten aurka gezurrez ateratako bertsoak omen direlako, oso mindurik zeukaten aipatutako jauna eta edozein gaiztakeria egiteko prest. Herritarren ustez, beste alde, Juan Etxeberria izan behar zuen kantuaren egilea. Hori dela eta eskatzen zion apaizak lehenik bakeak gitea.

Bertsoen egilea.

Juan Etxeberria ote zen, gero, kantu honen egilea? Zer segurtamen zukeen herriko apaizak horrelako erabaki bat hartzerakoan?

Hemezortzi giza-emakumeen lekukotasunez baliatzen da hori esateko.

Ikus ditzagun laburki bertan ematen diren argibide garrantzitsuenak. Alde baterik, kaleko giroa aipatzen da. Lekuko guziek aitortzen dutenez, irain kantu hauen egilea Etxeberria jauna zelako zurrumurrua oso zabaldurik omen zegoen Lasarten.

Kupidarik gabe abestu ohi zituen nunbait Etxeberriak, asko bait dira entzun zizkiotela esaten dutenak. Ihauterietan Barandiaran baten etxean abestu ondoan, bertotan den Irugarateri bere etxe aurrean erripikatu nahi izan zizkion bere lagunak lekuko. Egin ere egingo zuen lan hori, Asentzia bere emaztea bidera atera ez balitzaio. «Zer egitera zoaz?» oihu egin omen zion negarrez. «Bertan utzi nahi alduzu bizia?» Harrosko zebilen nunbait bere bertsoekin gizona eta ez zuen ongi hartu etxeoandreaken oharra. Jotzera abiatu omen zen kopeta txarrean eta lagunek utzi izan baliote zanpatuko zukeen emaztea.

Irugarate jauna, beste alde, lotsaturik omen zegoen jendeen aurrera ateratzeko beldurrez, eta beroaldiren batean edozein erabaki hartzeko gertu.

Erretore jaunak lanetik zetozen hiru gizon harturik Eliza atarira deitu zuen Etxeberria. Lehen eta bigarren aldiak ez zen agertu. Hirugarrenean etorri zelarik, noizbait kantua abestu zuenik ez zuen ukatu bainan, egilea bera zela frogatzea gostako zitzaiola esanez utzi zuen apaiza.

Hain arin hartu ote zuen abadeak Etxeberriari sakramentuak ukatzeko erabakia? Nola zekien berak?

Emakumeengandik zabaldu zen berria. Etxeberriak bazuen hamazazpi urteko neskamea eta honek kaleratu zuen kantua. Lasarteko neskato gazteak ogi saltzera joaten ziren egunero Donostiara eta hauekin batera joaten zen batzutan Brijida, Etxeberria horren neskamea. Bidean errepikatuz erakutsi zien lagunei eta hauengandik ikasi zuten herritarrek. Brijidak auzian dioenez, bere nagusiak etxean asmatutako bertsoak dira. Askotan entzun zizkion, eta berari baino lehen ez zizkion besterik inori aditu.

Etxeberriaren emaztea ere barne dabil auzi honetan. Agustina Legorburu izeneko lekukoak aitortzen duenez, Maria Asentziori entzun zion noizbait, beste hiru lagun aurrean, kantu hori bere senarrak egin zuela esaten. Bere baitatik ez baino, norbaiten eskariz atera zituela aipatu omen zien gero. Itxuraz, iturri oneko berriak.

Zehaztasunik jakingarrienak, hala ere, neskamearen ahizpa gazteak ematen ditu. Ardazketara joan omen zen neguan Etxeberriaren etxera eta Irugarate jauna aipatu izan behar zuen berak. Gizona hari-matazak egosten ikusi zuela alegia, emaztea gaxorik zeukalako. Neskak hori esatean barrez hasi omen ziren entzun zioten guziak, eta bertsoak paratzea merezi zuela aipatu omen zuen etxeoandreak.

Gizonak, orduan, baietz; bertsoak behar baziren izango zituela bertsoak; eta han bertan bota zituela lehenengoak. Hamabost urteko neskato honek eman zizkion beraz, uste gabe, bertsolariari puntuak.

Juan Martín Gorostiaga zen Lasarteko apaiza eta garbi zeukan beretzat gizatzarkeriaz egin zituela Etxeberriak bertsoak. Elizako sakramentuak hartzeko iraindu zuen gizonari barkamena eskatzeko agintzen zion. Epaileek ez zuten bere jokabidea hain egokia ikusten eta bere etxean atxiloturik eduki zuten denbora luzean, bere parrokiari meza ematera joateko ere baimenik gabe. Auzi epaian agintzen diote gero apaiz eta erretoa bezala bere eginkizunak obeki betetzea, aitorza eta eukaristia banatuz. Ikusten da pundu honi eman ziotela legezinez garrantzi osoa. Azkenekoz, lau dukat ordaindu behar izan zituen, auzi gastuak bere gain zirela.

Dirudenez, apaiz zaharraren adina haundiak eta «Santo Oficio» delako ordezkari izateak ez zioten asko baliatu.⁴

Lasarteko bertsoak.

1. *Oraziobatt esango degu Credo a beçain eguia mundu gusia Ycasi du Juanes gure berria.*
2. *Andre attorran Sarttua saude Juanes Maria Latasa Yraquitean egosi dittusu ogueitabi mattasa.*
3. *égoste ori ézer ézanda Jonay sinduan Arrian gusion gusien desonrragarri asco Serade errian.*
4. *Zuri Andreac ézatten disu nere Janes Leorra Saldiac maysaq Jandiuscutta Arren dacargun beorra.*
5. *Sure abereac nondiq baytue Otea Bastimentua Santtanttonetan Ysandu desu ayesas Ecarmentua.*

4. Lasarteko erretoarearen eritzia arazo honetan, hau da: «El confesante, como se supone en dicha pregunta, no le nego al dicho Juan de Echeuerria querellante en esos tiempos y ocasiones que refiere la pregunta, la Confession y Santa Comunión, Sino es se las dilatto por sauer el confesante que dicho querellante no benia dispuesto para la Una ni Otra, Respectto de que por Voz Común y publica le constaua al confesante Compuso dicho Echeuerria Una canzion infamatoria, que entodas sus zircunstancias se iguala (Segun lo entendio el Confesante) con el Libelo famoso Conttumelioso que trae La Armilla Aurea del Rvmo. Sumo Inquisidor de la Orden de Predicadores... Y no solo por Voz Común y pública de hauer Compuesto dicho Echeuerria querellante dicha Canzion, sin es tambien hauerla Cantado en dibersas partes y ocasiones con meneos de manos y Pies, y en grauisimo desonor de Juanes Yrugaratte y Agustina de Legorburu Vecinos de esta dicha Población, personas pazificas, Virtuotas, y tenidas por hijos dalgo, y no solo esto sino hauerla cantado dicho querellante Conttumelias amentte oyendo dicho Yrugaratte y su muger, y sobre todo por lo que tambien se le explicaron al Confesante Brijida de Lastaun y Josepha de Lastaun hermanas Vecinas de esta dicha Poblacion que dicho echeuerria querellante compuso dicha Canzion». (fol.40)

In dha ehammi. ~~duellana~~ sua tha Canzonia
Cua ~~...~~ e del tenor sig' Onia lengua da

aghi La ~~...~~ longada
Qraimbax. crango deou Craxha becam egua -
mundu quia Lcar du Tuome quie berrua -

Ancas arduan seraxu aude duome Maria Latava -
tragitcan car d'uru ogura ab' matava -

Epatcon Eran caanda Tonay induan Aruan -
Quon quia Deonna daru asco Lesde Cruan -

Lou Andreas. Caraxen dux rexe Jahu Lerna -
Silliac mayoaq Andius cata Arampacang beoxa -

Saxa Araxac Nandig ay re Oter: Pastionna -
Araxione tan Ladudu deu ay sal ecor menca -

Eigarduan Liminduan Lend Tang bercan -
Flaman Oegu ar axata Erax sun arwan -

Eg Deonna asca odacax. Louca Lam altua -
Arax Araxiac Arax degu Arax Loaxa -

Arax Araxac. Egax carax. Ecax dix Caraxa -
Beti Sical En Araxa Vrudal marisa -

Enonexan. Arax Arax Arax Arax Arax -
Tori madaxia gailcan naxax Tajo Araxa -

Arax Arax Arax Arax Arax Arax Arax -
Arax Arax Arax Arax Arax Arax Arax -

6. *esquadrian Ypinisinduan Yru ol zaspi besoan
Plomoan ongui asentattuta Erresisuen ausoan.*
7. *experansaric asco daducatt, Zeruco Jaun altua
Andre Anttoniac Emango digu Ota joseco Lecua.*
8. *Yresatt Trosac éguitecosatt Ecarri diat Carisa
Beti sualdian orraza dirudiala Marisa.*
9. *Erri onettan Bisi ninzan Bacarriq ongui ninsala
Sori madaricagaistoan neresatt Jayo Ynzala.*
10. *Daga Espataq eraguin ditut Armero baten echean
Agustinacho Ybillico nais Surequin nere gaisean.*
11. *Agustinacho goasemasu Loyola Aldera Yguesi.
Bay espaligu mundu gusiaq gure berria Ycasi.*
12. *Ermitachoan Jari basinade chopin erdia jocasen
Eziran guisonaq Jarrico Orazioaq ezetten.*
13. *Jhs Joanes obero noa miña sentisen det Buruan
Medizina bat Arren Yndasu nere bigarren Leyoan.*
14. *Berealasen eranzun sion non ote da mesorquillea
nere cucharen Cuchatelan manea bidi Arguia.*
15. *Cana battean Jaso situan bere chuparen besoaq
Sin duda Uste esuan bayan Sentitu suan ausoaq.*
16. *Medizinori eman etta Lendabisico berbea
Ay Sen galanqui emandidasun Juanes nere Jabea.*
17. *Orazio au ecarri due Zeruan diran Yzarraq
Joanes Leorraq atteraseco tiraca bere bisarraq.*
18. *Plaza batean esango dittutt egundañoco gusiaq
estaquiенаq Ycasi biza Ysango dira eguiaq.*

Erdarazko agerpena.

Los Bersos Suso Inserttos Son los dela Canzion, y en el Senttido que da el Confesante y Reduzidos a Castellano Son del thenor siguiente:

1. Primer berso. Que las (oraciones) Palabras delos Berso(s) siguientes Son de tantta Berdad Como las del primer berso que es dezir que son de

San Blas de Parí en la Gobernación de Guayaquil
San Blas de Parí en la Gobernación de Guayaquil
San Blas de Parí en la Gobernación de Guayaquil
San Blas de Parí en la Gobernación de Guayaquil
San Blas de Parí en la Gobernación de Guayaquil

Borja en la Gobernación de Guayaquil
Borja en la Gobernación de Guayaquil
Borja en la Gobernación de Guayaquil

San Blas de Parí en la Gobernación de Guayaquil
San Blas de Parí en la Gobernación de Guayaquil
San Blas de Parí en la Gobernación de Guayaquil

San Blas de Parí en la Gobernación de Guayaquil
San Blas de Parí en la Gobernación de Guayaquil

San Blas de Parí en la Gobernación de Guayaquil
San Blas de Parí en la Gobernación de Guayaquil
San Blas de Parí en la Gobernación de Guayaquil

San Blas de Parí en la Gobernación de Guayaquil
San Blas de Parí en la Gobernación de Guayaquil
San Blas de Parí en la Gobernación de Guayaquil

Las Bajas sus tramos son las de la Comisión y
en el Partido de la Comisión de la Comisión de
Cubellano son el honor de

Unión de Bajas

Las Bajas sus tramos son las de la Comisión y
en el Partido de la Comisión de la Comisión de
Cubellano son el honor de
que son de tanta Bajas como el Cero y Comos las Bajas
suntos mltoria y Bajas de Curvica que Con tiron
I Bajas sus Bajas sus Bajas sus Bajas sus Bajas

tantta Berdad Como el Credo, y como los Sacro Santtos misterios y Verdades Cattolicas que se contienen en el; y si las dichas Palabras delos dichos Bersos Siguienttes son mentiras testimonios falsos y graves injurias Contra el proximo, Como quedaran Los Sacro Santtos misterios y Verdades infalibles denuestra Santta fee Cattholica; afirmar esto pareze que es propio de herejes porque dezir que las mentiras Son Como el Credo es dezir que el Credo es mentira.

2. Segundo berso. Tu has cosido Veinttey dos Madejas de Ylo en una Colada para tejer y hazer Ropa Blanca. El Coser las madejas noes Cosa tu querias Labarlas y Jabonarlas en una piedra, y tu eres Bastantte para des onrrar attodos Los hombres en este Lugar. Reparese en esta mentira y las desonrra que resulto deellas al ofendido.

3. Tercer berso. A ti hombre te dize tu muger mi Joanes Seco, ó, impotentte. Hombre el cauillo todo el maiz ha comido, traygamos La yegua en su Lugar. Mentira o testimonio falso.

4. Otro berso. Tu ganado por sustentto ó Zeuada tiene la Argoma poe eso tubiste por San Anton La desgracia de morirte dicho ganado. En que le tratta de miserable.

5. Otro berso. Que el Pesebre ó Puesto que tenia el dicho ofendido Para desmenuzar La Argoma Le auian quemado en la Bezindad. Mofa y burla.

6. Otro berso. Para ti he trahido dela tienda Una tela que se llama Cariza Para Ligartte y fajarte Como á niño, que siempre estas en la Cozina, Como marica, ó, pusilanimo. Bease Si son Palabras que ynzittan Benganza Odio y testimonio falso.

7. Otro berso. Vien Vibia yo sola en este Lugar amala Ora y malditta huuienes nazido Para mi. Testimonio falso.

8. Otro berso. Muger Yo he echo Labrar Una daga y espada en casa deun Armero, yo Andare en perjuicio tuio y mio. Burla y testimonio falso.

9. Otro berso. Muger Uygamos hazia Loyola. Si, fueramos de buena gana, sino supiera el mundo quales semos nos otros. tambien testimonio falso.

10. Otros berso. Si en la Hermita (que es la taberna) te huuieras puesto a jugar el quarttillo del Vino Nose hubieran puesto Los hombres á Canttar esta Orazion. En que se rattifica Que esta Canzion es orazion, horror Conozido Conttra la Yglesia Cattholica, llamar Orazion alos disparattes.

11. Otro berso. Jhs Juanes boy ala Cama tengo Dolor en la Cabeza por Uida tuya medes Una medezina En mi segunda Benttana. Palabras desbergonzadas y llenas de menttiras.

12. Otro berso. Adonde está el Cañutto ó la Jeringa. La muger al marido esta en mi Arca el Cañuto dispongase luego La medezina. Falso testimonio.

13. Otro berso. La primera Palabra despues de rezeuida La medizina, aque bien meas dado la medizina mi dueño Juanes.

14. Otro berso. ésta Orazion han trahido Las estrellas que estan en el Zielo para Sacar Juanes el Seco, ó, impotente Sus barbas ó, bigote. esto es horror, llamar orazion ala desberguenza, y Lo demas testimonio falso, y oprobio contra el ofendido.

15. Otro berso. Enttodala Plaza pública dire quantto ay en esto. El que no supiere Se enseñe que seran Verdades.

éstos son en el Senttido Castellano Los Bersos dela Canzion suso insertos, Los quales Se canttan asta oy dia de la fecha en esta Poblazion.

Gure eritzia.

Auzi izkribuek dakarten itzulpena Lasarteko erretoreak bere burua zuritzeko egina da, noski, eta ez da hitzez-hitzez jasoa, esanahi nagusien agerpenerako baizik. Kristau legearen aurka dauden trakeskerien salaketa egiten du batez ere. Hori dela eta, zenbait bertsu ez ditu aipatzen ere. Bigarren bertsoan, esate baterako, hirugarren puntua ere sartzen du gaiaren segida denez. Hala ere, bere agerpenak kontuan hartzekoak dira herri giroa aztertzerakoan.

Bertso hauetan sartzen diren gai nagusiak hiru direla esango nuke nik: a) Hari matazen lisiba. b) Etxeko abereen gosea eta, c) Lizunkeria.

a) *Lisiba*. Ardazketako liho lanetan gordina ateratzen zen haria eta lisiban egosi ohi zen biguntzen joateko. Iturriko harrian jotzen zituzten gero mataza guziak. Emakume lana zen, noski, eta gaizki ikusia zen lisiba gizonak egitea. Hau da bertso hauen aitzakia.

Gezurra badirudi ere, puntu honetan datza bertso paper hauen ardatza. Gai xumea bainan mingarria gizon batentzat emagixon bezala agertzea. *Marisa*, dio bertsolariak. Bigarren eta hirugarren bertsoen gaia da, eta zortzigarrena ere bide horretatik doa.

b) *Otajana*. Otea ez da zaldare hoberena baina besterik ez delarik gose gorria baino hobea. Nekazari eskasa dela adierazteko zirtadak dira honako hauek: artoa zaldiak jana, aberea ote-bazkarekin eta San Antonetan hila, otagan-bela auzoan errea eta, susmo gaiztoz aipaturiko andre Antoniaren «ota jotzeko lekua». Laugarren bertsoetik zazpigarrenera horretaz ari da.

c) *Lizunkeria*. Gehienik errepikatzen duen gaia haragikeriarena da. Daga ezpata, maitalearen minak, orratza eta medezina zentzu biko esaerak dira honelako izkribuetan. Amodio izkutuen aipamena dagoela dirudi Agustinatxo horren atzetik bertsolariaren asmoan.

Idazkera aldetik, Z/S nahasten ditu gehienetan: *gusia* (1), *saude*, *dittusu* (2), *sinduan*, *guison* (3), eta horrela ia bertso denetan. Noizbait alderantziz, *ézatten*, laugarren bertsoan.

Hitzaren hasierako *e* hizkiak azentuaren kaxotxa darama behin baino gehiagotan: *égosteor* *ézer ézanda*, hirugarren bikotean.

Berbea hitza hamaseigarren punduan bizkaieraz bezala agertzen zaigu. Gramatika aldetik akats bat dago leen bikotean: *mundu guzia/mundu guziak*, aditz iragankorra bait da.

Gaurko idazkera batuan honela emango genuke kantua:

1. *Orazio bat esango degu Kredoa bezain egia:
mundu guziak ikasi du, Joanes, gure berria.*
2. *Andre atorran sartua zaude Joanes Maria Latasa,
irakitean egosi dituzu hogeitabi mataza.*
3. *Egoste hori ezer etzanda jo nahi zinduan barrian:
gizon guzien desonragarri asko zerade herrian.*
4. *Zuri andreak esaten dizu, nere Joanes lehorra
Zaldiak maizak jan diusku ta, arren, dakargun behorra.*
5. *Zure abereak nondik baitue osea bastimentua
Santantonetan izandu dezu haiezaz eskarmentua.*
6. *Eskuadrian ipini zinduan hiru ol zazpi besoan,
plomoan ongi asentatu ta erre zizuen auzoan.*
7. *Esperantzarik asko dadukat, zeruko Jaun altua,
Andre Antoniak emango digu ota-jotzeko lekua.*
8. *Hiretzat troxak egitekotzat ekarri diat karisa
beti sukaldian orratza dirudiala Marisa.*
9. *Herri honetan bizi nintzan bakarrik ongi nintzala
Zori madarikagaiztoan neretzat jaió hintzala.*
10. *Daga ezpatak eragin ditut armero baten etxean;
Agustinatxo, ibiliko naiz zurekin nere gaitzean.*
11. *Agustinatxo, goazemazu Lotola aldera ihesi.
Bai, ezbaligu mundu guziak gure berria ikasi.*

12. *Ermitatxoan jarri bazinade txopin erdia jokatzen etziran gizonak jarriko orazioak esaten.*
13. *Jbs Joanes! Ohera noa, mina senditzen det buruan, medizina bat, arren, indazu nere bigarren leihoan.*
14. *Berehalaxen erantzun zion, nun ote da mesorkillea nere kutxaren kutxatelan manea bidi argia.*
15. *Kana batean jaso zituan bere txuparen besoak, sin duda uste etzuan baiian sentitu zuan auzoak.*
16. *Medizin hori eman eta lehendabiziko berbea, Ai, zen galanki eman didazun, Joanes, nere jabea!*
17. *Orazio hau ekarri due zeruan diren izarrak Joanes lehorrak ateratzeko tiraka bizarrak.*
18. *Plaza batean esango ditut egundañoako guziak eztakienak ikasi bitza, izango dira egiak.*

Hiztegian agertzen diren iluntasunak bigarren zentzu baten ondoreagatik gertatu ohi dira. Adibidez:

eskudrian...hiru ol. Ohol etzana zutikako birekin gabela egiten duena. Otea xehatzeko tresna. *Zazpi besoan luzea,* gabelaren luzera. *Plomoan ongi asentatuta,* zutika, tente. (Seigarren bikotean)

Troxak. Haur txikien gerrikoak. *Paxak.* *Karisa,* erdal itzulpenak dioenez oihal moeta baten izena. *Sukaldian orratza,* emakumeak beti eskura duen lan tresna. (zortzigarrenean)

Daga ezpatak. Haragizko harremanen adierazpena. (10)

Ermitatxoan... txopin erdia. Ostatuan pinta erdia hartzea.

Mesorkillea, cañuto o jeringa itzultzen du izkribuak.